



[Inicio](#) > [Ortzadar](#)

IDAZLEA, HIZKUNTZALARIA ETA EUSKALTZAINA

Ibon Sarasola: “Euskararen batasunarena ez da problema filologikoa, soziala baizik”

‘Bitakora kaiera’ saiakeran (Erein), euskara batua sortzeko giltzarriak gogoratu ditu eta hizkuntza estandarra sortzeko prozesua amaitutzat jo du Sarasolak. Eredu egokia euskal idazle eta itzultzaileak direla uste du eta lehentasuna erabilerak duela

DABI PIEDRA - 2017(e)ko urtarrilaren 16a, astelehena - 12:23etan eguneratua

3 comentarios




G+



Atsegin dut

Partekatu

0



Más sobre Ortzadar

Irudimenaren imbasioa



Ibon Sarasola.

Euskara batuaren ajeak liburua argitaratu zuenetik hona, ikuspegia aldatu du Ibon Sarasolak euskararen bilakaerari dagokionez. Bitakora kaiera, hortaz, bere buruarekin "kontuak garbitzeko" modu bat da. Euskara batua beste fase batean sartu dela ohartarazi eta joko-zelai berrira egokitzeko deia egin du. Era berean, euskara ulergarriaren alde egin du eta, horretarako, garbizalekeria baztertu behar dela dio, batez ere sintaxian. Euskalkiak "euskara batuaren kolore" bihurtu behar direla uste du.

Zeure buruarekin kontuak garbitzeko idatzi duzu 'Bitakora kaiera', liburuan bertan aipatu duzunez. Zer zentzutan diozu hori?

Esan dezagun, orain dela hamar urte inguru, euskararen batasuna eta

Vista:

 [Más texto](#)

 [Más visual](#)



Hiriaren gainera, hiria



Ezer ez eta dena



Santi Yaniz: "Argazkilaritza biziesperientzia da niretzat"



Sorkuntza kolektiboa, elkartasunaren emaitza



[ir a Ortzadar »](#)

LO + LEÍDO

LO + COMENTADO

1. Detectan una enorme anomalía atmosférica en Venus
2. La niña apuñalada por su padre iba a venir a vivir a Donostia en dos meses
3. El alcalde de Otxandio pide una reunión con la Ertzaintza por la oleada de robos
4. El dilema Elustondo
5. Eroski invierte más de 300 millones en la transformación de sus tiendas de nueva generación
6. "Para mí es un reto hacer las presentaciones en castellano"
7. Afectada de piernas inquietas: "No es dolor ni picor, pero me obliga a moverme"
8. "Pescan" un caballito de mar en la Ría

garabidea modu batean ikusten nituela eta gero konturatu nin-tzen irizpideak eta ikusmoldeak aldatu behar nituela. Ni bide batetik nindoan eta bazirudien euskal literatura beste batetik zihoala.

Zure ikuspegia egokitu egin duzu, beraz. Hala ere, iritzi aldaketa hutsa izan da, ala euskararen beraren egoera aldatu izanaren ondorioa?

Nik uste dut euskarak bere garapenaren bidea aldatu duela, orain hizkuntza normal bat bihurtu da, normal hitzaren zentzurik zabalenean behintzat. Orduan, horretara egokitu behar gara. Euskaltzaindiak garai batean batasunaren prozesuan izan zuen indarra ez du orain, eta egin behar dena da euskal autore eta itzultzaile onek egiten dutena ikusi eta horri segitu.

Euskara batuaren sortze prozesua amaitutzat jotzen duzu liburuan.

Noski. Hizkuntza aldatuko da baina gaztelania aldatuko den bezala, edo ingelesa. Jada ez da batasun kontu bat, hori eginda dago. Orain hizkuntza aldatzen joango da, baina hizkuntza batu estandar bat izango da aldatzen joango dena eta ez, orain arte bezala, hizkuntzaren beraren sistema linguistikoa. Hori ez dago kolokan orain.

Euskara batua sortzeko prozesuan parte hartu zenuen. Nola lortu zen eredu hura gizartean zabaltzea?

Nik esango nuke aurreko porrotetatik ikasi genuela, nolabait. Hor funtsezkoa izan zen halako diziplina bat. Mitxelenari, bidea marka-tzen zuenari, jarraitu genion. Gauza guztiak zalantzan jartzen aritu beharrean, hark esaten zuenari segitu genion. Hor, nire ustez, oso inportantea izan zen hatxearen kontua. Ez letragatik beragatik, baizik eta euskal gizartea polarizatu egin zuelako, hatxearen aldekoen eta kontrakoaren artean. Horrek gizarteratu egin zuen euskara batuaren

9. Un juez de Bilbao obliga a un banco a devolver lo cobrado por una cláusula suelo
10. Localizado en Rumanía el bebé que se llevó su madre biológica en Donostia

SÍGUENOS EN



Bizkaia



Athletic



Facebook



Kirolak




RSS


VÍDEOS

FOTOS


GALERÍAS



"Pescan" un caballito de mar en la Ría de Bilbao
Finalmente fue devuelto al agua y queda constancia de que el caballito sobrevivió



"Todo es mejorable pero estamos donde queríamos"



Detenido el presunto autor de la masacre de Nochevieja en Estambul
Junto a Abdulkadir Masharipov fueron arrestadas otras cuatro personas

Encuestas

¿Te parece preocupante la baja de Kepa Arrizabalaga?

problema. Aurreko saioei hori falta izan zitzaien, gizarteratzea. Adibidez, Azkuek proposatu zuen gipuzkera osotua delakoa, batasun proiektu bat zen. Jende guztiak txalotu zuen baina inork ez zuen segitu. Ez zenez problema bat, ez zen gizarteratu. Gure aldian, hatxearen kontura, euskal gizarte osoak zekien zertan ari ginen, zergatik... batzuk alde jarri ziren, besteak kontra. Liburuan esaten dudak bezala, hatxerik gabe ez zen euskararen batasunik egingo. Azken finean, euskararen batasunarena ez da problema linguistikoa edo filologikoa, problema soziala da, gizartea tartean sartu behar duzulako. Eta hori, jendeak uste duenaren kontra, oso zaila da. Jendeari esan behar diozu, "hara, orain bat-batean holaxe idatzi behar duzu", eta kasu egin behar dizute.

Euskara batuaren eredutzat idazle eta itzultzaile onak jarri dituzu.

Euskaltzaindiak zer zeregin izan behar luke?

Dagoeneko, de facto, beste akademia bat da, ez da lehengoa. Akademien zeregin nagusia hizkuntzak batzea izan da beti, baina ez bakarrik hemen. Jendeak jakin behar luke ingelesak ez duela akademiarik. Hizkuntza batek estandarra ezartzen duenean zer? Ba, bueno... ez dakit bere lana nolakoa izan daitekeen ere, egia esan. Frantziakoak, esaterako, ia ez du ezer egiten gaur egun. Batez ere, egiten duena da beraiek hizkuntza erregional deitzen duten horien kontra jardun. Norbaitek eska-tzen duenean Frantzian euskara ofiziala izatea, Akademia segituan ateratzen da ezetz esaten. Hortik kanpo, ezer gutxi. Espainian ere, zer egiten du Akademiak? Gehienez ere, kalean jada normalizatuta dagoena jaso, eta ondoren onartu. Akademiak esan dezake ez dakit zein hitz gaizki dagoela, baina azkenean onartu behar izaten du.

Hala ere, 'Bitakora kaiera' liburuan zeuk ere gomendio batzuk egiten dituzu, hitz ordenaz, erlatiboaren erabileraz...

- Sí, y mucho. Como le pase algo a Iraizoz nos vamos a acordar de Herrerín
- No. Gorka Iraizoz era hasta hace dos días el portero titular. Tenemos portero
- No sé, pero desde luego ya es mala suerte

Votar

Ver resultados

¿Te parece acertado la elección de Angels Barceló como Tambor de Oro?

[ver listado completo »](#)


Blogs de **deia**

Ver todos

Síguenos en @deia_blogosfera

El rincón del protestón

Iñigo Landa



Euskal Selektzioa, un formato amortizado.

No acudí a mi anual cita navideña con nuestra Selección Vasca de Fútbol. No lo hice al no... [+]

Bilbainhitos

Niko Vázquez



Al parecer va hacer frío en pleno enero

...
"Queridos telespectadores, malas noticias: por algún extraño fenómeno sobrenatural les... [+]

Mantel Bleu

Esmeralda Escobar



Tosta de carpaccio de ternera con aguacate, tomates secos y queso

Hoy para la cena nos hemos preparado una tosta de las elegantes y ... riquísima (qué es de lo... [+]

ÚLTIMA HORA

Baina ez da hizkuntza estandarra nolakoa izan behar den proposatzea. Hizkuntza batek, batez ere, balio behar du hiztunek elkar ulertu dezaten eta nik hortik heldu diet gauzei. Niretzat zer da gramatika momentu honetan? Jendeak lehenengo irakurraldian testu bat ulertzea. Eta orain hori ez da askotan gertatzen, ditugun gramatikak begiratzen badituzu, ikusten da ez dutela funtzionatzen. Liburu honetan esaldi batzuk hartzen ditut eta hobetzeko bideak ematen ditut. Baina liburuaren parte hori ez da arau-emailea, asmoa da ikusaraztea zabaldu diren arau batzuk segituz gero ez goazela ondo.

Adibideak emateko orduan, euskal idazle klasikoak ekarri dituzu liburura.

Bai, baina nik ez dut esaten irakurle guztiek klasikoak irakurtzen hasi behar dutenik, hori bigarren pausu bat litzateke, izatekotan. Idazten hasi nahi duenak askoz hobe du gaur egungo idazle onak irakurtzea. Baina gaur egungo idazle horiek onak dira, klasikoak probetxuz irakurri dituztelako. Klasikoekin kontuz, klasikoak hartzen badira esateko “begira ze ondo osatzen duen esaldia, ze ondo geratzen zaion”, eta horretan oinarritu, ba hori ongi dago. Baina norbaitek hartzen baditu klasikoak hemengo bitxikeria hau edo esamolde xeble hura bereganatzeko, jai du. Ez du asmatuko egin behar lukeenaren bidean.

Azkenaldian txokokeriarako joera bat zabaldu da, euskara estandarrago baten orde herrietako hizkerak edonon eta edonola erabiltzekoa. Zuk nola bizi duzu hori?

Niretzat hori folklorea da, guk euskara batua sortu genuenean folklorea konbatitu genuen. Horrek ez du inongo interesik, bitxikeriak direlako, eta badirudi jatorreria horretan dagoela hizkuntzaren zera, baina azkenean folklorea da. Hori ez da inongo beste hizkuntzatan egiten eta, gauzak ondo egin nahi izatera, guk ere ez genuke halakorik egin behar.

06:04 *“Para mí es un reto hacer las presentaciones en castellano”*
‘El conquis’, un clásico ya en ETB-2, aterriza hoy con la emisora Gaztea en plató

06:04 *La última pesadilla*
El Atlético, que **se mantiene invicto en el nuevo San Mamés**, encadena ocho partidos sin caer derrotado

06:04 *El Athletic se inquieta por los cedidos*

06:04 *Yeray Álvarez, el “animal” está de vuelta*

06:04 *Ander: “Tenemos que mejorar el juego”*

Euskalkien inguruan esan dituzunek hautsak harrotu dituzte. Euskalkiak ez du lekurik euskara batuaren alboan edo haren osagarri?

Eztabaida hori sortu du liburua irakurri ez duen jendeak. Nik esaten dudana da, euskalkia onartu daitekeela euskaldun guztientzat ulergarria den neurrian. Argentinako eta Espainiako espainola oso diferenteak dira, baina nik argentinoa entzuten baldin badut ez dut problemarik hura ulertzeko. Adibidez, Bizkaiko zenbait aldaera, eman dezagun Ondarroakoa, nik sentitzen dut, baina ez ditut ulertzen. Hori batasunaren muinaren kontra doa. Euskalki horiek bihurtzen badira gaur egungo euskaldun normal batek ulertzen dituen zerbait, hor ez dago problemarik. Ulertzea da kontua, hizkuntzen funtsa jendeak elkar ulertzea da. Hori betetzen ez den neurrian, euskalkiek niretzat ez dute tokirik.

Baina, herri edo eskualde baten barruan, euskalkiak ezin du funtziorik bete?

Noski, hori ere esaten dut liburuan. Jardun pribatuan, hor konpon. Baina pulpitura edo tribunara igotzen zarenean, orduan kontuz. Hori gauza sinplea da, hizkuntza guztietan gerta-tzen da eta euskaran ere gertatzen zen. Adibidez, XX. mendearen hasieran: Lore Jokoetan, Oñatiko alkateak gipuzkeraz hitz egiten zuen, nahiz eta hizkeraz bizkaieraduna izan, jende gehiagorentzat ari zelako. Hori berezkoa da edozein hiztunengan, konturatzea norekin ari garen hitz egiten, eta hori galdu egin da ideologia xeble batzuen kulpaz.

Erdarek ere eragin nabarmena dute euskaran. Iparraldean eta Hegoaldean erdara bana izanda, bi euskara batu sortzeko arriskurik ikusten duzu?

Hori bai dela problema latza. Baina ez du erremediorik. Zer egingo duzu, gauza horiek berez doaz eta. Zuk ezin duzu dekretu bat atera, “hitz hau Iparraldean eta Hegoaldean hala erabiliko da” esanaz. Ez du zentzurik. Orain gerta-tzen dena ere ez da hain txarra, Hegoaldeko erdarakadak Iparraldean sartzen dira eta, tristea izango da batzuentzat, baina beste erremediorik ez dago. Ni, behintzat, erremediorik ez duten gauzen alde ez naiz inoiz jarriko, nekagarria delako.

Corpusak lantzen aritu zara azkenaldian, batez ere EHUren Euskara Institutuan. Euskara estandarerako hitz eta formak erabakitzeko orduan corpusek izan behar luketen garrantzia azpimarratu duzu liburuan.

Gaur egun, hizkuntza batean nolabaiteko eragina izan nahi baduzu, corpusak erabili behar dituzu. Euskara idatziaz ari naiz, jakina. Corpusek esaten digute nork, zer eta nola erabiltzen duen. Euskararen ildoak nondik nora doazen jakin gabe, nekez egin daiteke lan onik. Hizkuntza nora doan ikusi eta horri bultzatzea egin behar zaio, bestela ere nahikoa lan izango dugu hau aurrera ateratzen.

Liburuan kexa agertzen duzu, Euskaltzaindiak zuen lana aintzat hartzen duelako, baina zuek aipatu gabe. Euskaltzaina zara zu, baina aspalditik dituzu gorabeherak Akademiarekin. Tirabira horiek konpontzeko modurik ez duzue aurkitu?

Hara, nik alde batetik eta haiek bestetik, ez dugu hau konpontzeko gogo askorik eta ondo iruditzen zait, ez da ezer pasatzen. Bakoitzak bere bidea segi dezala eta kito. Niretzat, laugarren edo bosgarren mailako problema da hori momentu honetan.

3 comentarios



G+1



Atsegin dut

Partekatu

0

imprimir tamaño

COMENTARIOS: [Condiciones de uso](#)

- No están permitidos los comentarios no acordes a la temática o que atenten contra el derecho al honor e intimidad de terceros, puedan resultar injuriosos, calumniadores, infrinjan cualquier normativa o derecho de terceros.
- El usuario es el único responsable de sus comentarios.
- Deia se reserva el derecho a eliminarlos.

3 Iruzkin **Deia Noticias de Bizkaia**

1 Saioa hasi

Recommend

Partekatu

Berrietik hasita



Join the discussion...



Eguia Uria Maria Luisa • duela egun bat

Betidanik esan dot! Bizkaiera baztertu ETA agur! Euskaldun zaharrak baztertu ETA agur! Emakumea baztertuz eta agur! Orain betandutxu da!

Erantzun • Partekatu



iratze • duela 2 egun

Mesedez, faborez eta arren, mintza zaitetze, hitzegin ezazue, berba egin zuen artean!

"Euskal Herri osoaren logika segituz, Euskaltzaindiak izendaturik agertu beharko bailuke laster sortuko den HELEPen administrazio-testuetan, eta

haren kompetentziak definituak agertu beharko lirateke". Aurelia Arkotxak, "Euskaltzaindia, euskararen hizkuntza-duintasunaren ispilu" artikuluan.

"Euskaltzaindiak, nire ustez, egiten du gizartearekin lan bat. Ez dakit abertzaleek estimatzen dioten merezi adina, baina Euskaltzaindia da

erakunde bakarra zazpi probintziak aintzat hartzen dituen [...]

erakunde bakarra zazpi probintziak aintzat hartzen dituenen.[...]

Euskaltzaindiaren autoritatea indartu aldekoa naiz ni. Ni hala nago.

Zentralizazioaren ideia ona litzateke Euskal Herriarentzat. Ez da

posible egotea taifa erresuma bat, eta denak burutik jota egotea." Bernardo Atxagak, 2017-01-08ko Berrian.

^ | v • Erantzun • Partekatu >



iratze • duela 2 egun

Mesedez, faborez eta arren, mintza zaitetzte, hitzegin ezazue, berba egin zuen artean!

"Euskal Herri osoaren logika segituz, Euskaltzaindiak izendaturik agertu beharko bailuke laster sortuko den HELEPen administrazio-testuetan, eta haren kompetentziak definituak agertu beharko lirateke". Aurelia Arkotxa.

<http://www.euskaltzaindia.eus/...>

"Euskaltzaindiak, nire ustez, egiten du gizartearekin lan bat. Ez dakit abertzaleek estimatzen dioten merezi adina, baina Euskaltzaindia da erakunde bakarra zazpi probintziak aintzat hartzen dituenen.[...]

Euskaltzaindiaren autoritatea indartu aldekoa naiz ni. Ni hala nago.

Zentralizazioaren ideia ona litzateke Euskal Herriarentzat. Ez da

posible egotea taifa erresuma bat, eta denak burutik jota egotea." Bernardo Atxaga.

<http://www.berria.eus/papereko...>

^ | v • Erantzun • Partekatu >

HEMEN ERE: DEIA NOTICIAS DE BIZKAIA

La Fiscalía pide medidas para las tres menores que apalearon a otra en ...

1 iruzkin • duela 16 ordu•

Joxean — El juez toma medidas a las menores y dice que corresponden con las de una adulta. 60-90-60 o algo así

Encuentran un caballito de mar en la Ría. Deia, Noticias de Bizkaia

4 iruzkin • duela 18 ordu•

Joxean — Verdaderamente es una especie nueva. Se llama caballito de ría. Aunque quizá sea una especie única, ...

La niña apuñalada por su padre iba a

El Gobierno vasco introduce ayudas

venir a vivir a Donostia en dos meses

91 iruzkin • duela 14 ordu•

miren — La realidad paralela en la que vives.....Esa niña se ha criado en la cárcel porque así lo quiso su madre y ...

para paliar la pobreza energética

8 iruzkin • duela 20 ordu•

Julia Garay — Espero que sean para quienes lo necesiten, que no sea otro premio más acumulable para los de ...

 Harpidetu

 Gehitu Disqus zure webgunera

 Pribatutasuna


DISQUS

[Acerca de Deia](#) | [Publicidad](#) | [Promociones](#) | [Suscríbete a Deia](#)

deiadigital@deia.com | [Ir a la versión móvil](#) | Visite también [www .noticiasdenavarra.com](http://www.noticiasdenavarra.com) | [www .noticiasdegipuzkoa.com](http://www.noticiasdegipuzkoa.com) | www .noticiasdealava.com

© Deia - Noticias de Bizkaia | [Aviso legal](#) | [Condiciones de uso](#) | [Mapa web](#) | [Contacto](#)

© Editorial Iparraguirre, S.A. · Camino de Capuchinos, 6, 5º C Bilbao · Tel 944 599 100, Fax 944 599 120

-  Suscripción por RSS
- Boletín
- Edición impresa en PDF
- Auditada por OJD